

han-hemen

Desagertzeaz dauden pinguino japoniarrik ikus daitezke Mexikon

Desagertzeko arriskuan dauden hamabi Humboldt pinguino japoniar ikus daitezke, atzoz geroztik, Mexiko Hiriko Chapultepec Zooan. Pinguinoak Japongo Nagoyako Higashiyama Zooaren eskutik iritsi ziren Mexikora, iragan urriaren 12an, baina giro-tze prozesu bat igaro behar izan dute. Mexikoko zooak, berriz, bi hartz betaurrekodun eman dizkio Japoniako zooari.

Jennifer Lopezen perfume berriari plagioa leporatu diote

Jennifer Lopez kantari eta aktoreak perfume produktu berriak aurkeztu zituen duela gutxi, baina momentuz ezingo dituzte saldu, izenarekin arazoak sortu baitira. Kontua da Los Angelesko enpresa bat Glow by J. Lo izeneko gel eta lozio sorta bat saltzen ari dela AEBetako dendetan, eta Lopezen perfumeari plagioa egitea leporatu diote. Abenduaren 6rako, Margaret Morrow epaileak bi aldeak deitu ditu perfumearen izenarekin zer egin erabakitzeko.

Amina Annabi: «Duela bost urte, kantatzen zuen emakumeari prostituta deitzen zioten Tunisian»

Kanariar Uharteetako Womad jaialdian izan da asteburu honetan Amina Annabi kantari tunisiarra. Duela hamabi urte Frantzia ordezkatu zuen Annabi Eurovisionen, eta esanahi berezia izan zuen or-



M.H. DE LEON / EFE

Animalien eskubideen aldeko protestaldia, Madrilen

Madrilgo Puerta del Solen protestaldi ikusgarria egin zuten atzo Animalien Eskubideen Aldeko Elkarteko kideek. Animalien larruarekin eginiko jantzien aurkako aldarrikapena zabaldu zuten.



MICHAEL STEPHENS / EPA

Londresko Lord nagusi berria, pozik hiriko kaleetatik

Lord's Mayor Show izeneko ekitaldian gustura azaldu zen atzo Alderman Gavyn Arthur Lord berria. Hiriko erdialdeko kaleetatik jendea agurtzen arituz Alderman.



YUI MOK / AP

Madonna eta Guy Ritchieren azkeneko filma, porroterako bidean

Oso triste iritsi dira Madonna eta bere senar Guy Ritchie Londresera. Izan ere, Ritchiek zuzendu eta Maddonnak interpretatutako *Swept Away* filma ez dute estreinatuko Erresuma Batuko aretoetan eurek espero zuten bezala. Banatzaileek adierazi dutenez, AEBetan izan duen harrera eskasa da horren arrazoia.

dezkaritza hark. «Bihotzarekin abestu eta kantatzea pribilegio bat da niretzat», dio kantariak. «Baina duela gutxi arte Tunisian kantatzen zuen emakumeari prostituta deitzen zioten. Zorionez, gauzak aldatzen ari dira», gaineratu du.

Suediako Victoria printzesari buruzko liburu bat argitaratu dute

Suediako Victoria printzesak 25 urte baino ez dituen arren, bere bizitzari buruzko liburu bat argitaratu dute. Elkarriketa luze bat da, eta bertan esaten duenez, «galduta zegoen garaia» gainditu du dagoe-

neko. «Oso zaila egiten zitzaidan etengabe jende ezezaguna agurtzen ibiltzea», dio Victoriak. Nazioarteko harremanekin edo animaliekin lotutako zerbaitekin egin nahi du lan printzesak.

Baliteke Martina Hingisek tenisa uztea

Martina Hingis tenislari suitzarrak adierazi duenez, «txapelketa bateko final-laurdenak edo final-erdiak gainditzin ez dutudala ikusten badut, tenisa utziko dut». Adierazpen hauek emakume Masterra ikusten duen bitartean egin ditu, eta familia bat osatu nahi duela esan du.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222

publi@egunkaria.com



**Bautista
Arandia
Gaztañaga**

Bigarren urteurrena

Zure irria ez dugu ikusten
bai zure alaitasuna,
zure abotsa ez dugu entzuten
bai zure bitz oibartzuna,
zure muxua ezin sentitu
bai hark sortu obi ziguna,
zu joan zara baina gurekin
dago zure maitasuna.

ETXEKOAK

Albiztur, 2002ko azaroaren 10a